



Familia
Amoris Laetitia
Año 2021 - 2022

*Klik
egin hemen*

Familiaren urtea



CONFERENCIA
EPISCOPAL
ESPAÑOLA

Familia, Jainkoaren Hitzaren argitan

«Kristorengandik, Eleizaren, ezkontzaren eta familiaren bitartez, Jainkoaren maitasunaren lekukotasuna emoteko eta alkartasunezko bizitza bizitzeko ezinbesteko grazia jasoten dabe» (AL 63)



Frantzisko Aita Santuaren eragingarria

«Jesusen samurtasun eta errukizko begiradaz beraz, Eleizak lagun egin gura deutse familiei eta familia bakotxa ebanjelizatzearen zutabe bihurtu. Gauza bat esan gura deusuet: ezkontzaren sakramentuaren bitartez, familia bakotxak munduaren iluntasunean argi bihurtzeko grazia jasoten dau».

«Familia bakotxa, ondasuna, indarra da Eleizarentzat! Familian eragiten dan doearen edertasuna, sortzen dan biziaren poztasuna eta txikien eta nagusien zaintzea dala-eta, familia bakotxa ordezkazina da, ez bakarrik Eleizan, gizartean bertan baino. Horregaitik, Eleiza, "familien familia" da, zuetako bakotxaren ekarpenagaz aberastu egiten dana».



Familia
Amoris Laetitia
Año 2011 - 2021



CONFERENCIA
EPISCOPAL
ESPAÑOLA



Lekukotasuna

«Sakramentuaren graziak, Jesusek laguntzaz, gauzak ahalbideratu egiten dituala esperimentatu dogu 31 urteko ezkon-bizitzan».

«Ezkontza, santutasunerako bidea da».



Arrastoen jokoa familian



Munduko ze ekitaldi garrantzitsu ospatuko da laster?

1. urratsa

Non gertatuko da?

Jakiteko, bilatu Bibliako aipu honeen jatorria eta erabili erreferentzia bakotxaren lehenengo hizkia. Uri baten izena lortu behar dozu.

Arrastoa: Idatzi aipuak, banan-banan, interneteko bilatzailean eta erreferentziak erakutsiko deusuz. Baina, kontuz, hizkiak ez dagoz ordenan!

- *Agertu daitela distiratsu zuen argia gizon eta emakumeen aurrean, zuen egintza onak ikusi daiezan eta zeruetan dan zuen Aitari antzaz bete daien.*
- *Maite izan neban Israel bere gaztaroan, eta Egiptotik nire semea deitu neban.*
- *Bihotzez maitatu alkar, eta besteak zeuen burua baino estimu handiagoan izan.*
- *Zuzenbidea ura bezala isurarazi eta zuzentasuna erreka iraunkor lez.*



2. urratsa

Noiz izango da?

Jakiteko, bilatu hurrengo aipua eta kapituluaren eta txatalaren zenbakiez baliatu urtea osatzeko.

Eta, hau esanda, euren gainera putz egin eta esan eutsen: Hartu eizue Espiritu Santua.

3. urratsa

Zein da arrazoa?

Hamargarrenez gertatzen dala baino ez dozu jakin behar.

Alkartu hiru emaitzak interneteko bilatzailean eta erantzuna aurkituko dozu. Zorte on!



Gogoeta egiteko

Miguel Angel, Aurora eta seme-alabek (Jerez de la Fronterakoak) FAMILIA BOKAZIOAZ daben esperientzia kontatuko deuskue.



Familia
Amoris Laetitia
ANO 2011 - 2013



CONFERENCIA
EPISCOPAL
ESPAÑOLA



Sakontzeko

Egin klik hemen, Erromatik proposatzen deuskuen lagungarria irakurteko.